



**LEGAZPIKO UDALA**

**LEGEALDI PLANA**

**2015-2019**

Agiri honek, udalerriaz duen ikuspegira hurbiltzeko Gobernu Taldeak estrategikotzat jotzen dituen helburuak biltzen ditu.





*“Sortu egin behar da aukera, etortzeko zain egon gabe” (Francis Bacon).*

*‘Gobernantza ona’ bereganatuko duten herrialdeek aukera handiagoa izango dute euren herritarrei bizi-maila itxurosoa eskaintzeko. Egin ezin izango dutenak gainbehera- eta disfuntzio-egoerara kondenatuak izango dira” (Micklethwait/Wooldridge)*

# LEGEALDI PLANA 2015-2019

## *Aurrekariak eta justifikazioa*

Udal erakundea egitura arina, modernoa, gardena eta, batik bat, eraginkorra eta efizientea bihurtzeko lan zirrargarrian murgilduta, gobernu taldeak lan tresna berri bat landu beharra ikusi du, Tokiko Administrazioan ohikoa ez den baina erakargarria eta berritzailea den lan tresna: Legealdi Plana.

Planifikazio Estrategikoaren erabilera eremu publikoan ezinbesteko erremintatzat jotzen da baliabideen lehentasuna eta esleipena identifikatzeko, are gehiago emaitzekin lotutako kudeaketa lortzeko aldaketan eta eskakizun handiko testuinguruan gaudenean.

Ekintza politikoa Legealdi Plan batekin zehazteak onura asko ditu, zalantzarik gabe:

- Arlo bakoitzaren helburuak ezarri eta lehenesten ditu.
- Udal Aurrekontuak egitea errazten du, baliabideak aldeztu aurretik lehenetsitako helburuen arabera arrazionalizatzean eta banatzean haiek egiteko oinarritzko elementua bihurtzen delako.
- Gobernuaren lana errazten du, haren bide orria bihurtzen delako.
- Betetze-maila neurtzea ahalbidetzen du, bai herritarren aldetik baita oposizioaren aldetik ere.
- Kudeaketa publikoan gardentasunaren eta parte hartzearen ikurra bihurtzen da.

Legealdi Plana egiteko prozesua Alkatetza buru dela gauzatu da, eginkizun horretan sortu berri den Zuzendaritza Taldearen laguntzarekin. Azpimarratzekoa eta eskertzekoa da udal langile guztien laguntza eta parte hartzea, horri esker Planak gure egoera zehatzean eta egun bizi dugun errealitatean oinarritutako proposamenak biltzen baititu.



## *Gure xedea*

Xedeak, besteak beste, honakoak zehazten ditu: legealdi honetan bereziki garatuko dugun jarduera, prestatu beharreko zerbitzuekin bete nahi ditugun beharrak, zerbitzuak zein egoeran garatuko diren eta eman nahi dugun irudi publikoa; azken finean, gure Xedea galdera honi ematen zaion erantzunarekin zehazten da: Zertarako gaude udaletxean?.

Gobernu talde honen Xedea legazpiarren, bisitan etorriko diren eta gure udalerrian lan profesionala gauzatzeko interesa agertuko dutenen beharrei eta itzaropenei erantzuna ematea da. Haiek dira, bikaintasuna eta berrikuntza helburu izanik, lanean ari den gizatalde profesionalak eskaintzen dituen udal zerbitzu publiko eraginkorrak prestatzearen ardatz nagusia.



## *Gure ikuspegia*

Gure Ikuspegiak egungo Gobernu Taldeak 2015-2019 Legealdian zehar izan nahi duen etorkizuneko egoera deskribatzen du; gure ikuspegiaren xedea erakundea gidatzea eta bultzatzea da, ezarritako helburuak betetzera iritsi dadin. Gure ikuspegia honako galderari erantzuten diogunean zehazten dugu: hemendik 4 urtera nolako udalerrria nahi dugu?

Hauxe da Ikuspegia: Legazpi herri bizia, dinamikoa eta erakargarria izan dadila, etorkizunean lana, etxebizitza eta gizarte zerbitzuak eskainiko dizkiguna eta bizi-kalitatea emango diguna.

Ikuspegi hori, aurreko atalean zehaztutako Xedearekin batera, Legealdi honetan zehar gure gogoeta eta jarduera guztiak gidatuko dituzten formulazioen multzoa da.



## *Gure balioak*

Gure Balioek Gobernu Talde honen kudeaketan nagusituko diren funtsezko eta oinarrizko printzipioak adierazten dituzte,

**1. Eraginkortasuna:**

Lana lehenengo ahaleginean ondo egitea.

**2. Efizientzia:**

Lana ahalik eta kostu txikienarekin egitea.

**3. Gardentasuna:**

Egiten duguna eta zergatik egiten dugun azaltzen dugu.

**4. Hurbiltasuna:**

Herritarren esanetara gaude; haiengan pertsonak ikusten ditugu eta ez bezeroak.

**5. Errespetua:**

Herritarrak entzuten ditugu, haiengan arreta jartzen dugu eta haien interesak eta beharrak baloratzen ditugu.

**6. Zintzotasuna:**

Zuzen eta garbi jokatuko dugu.

**7. Entzute aktiboa:**

Proposamenak eta eskariak ulertuko ditugu, erantzun egokia emateko.

**8. Parte hartzea:**

Mekanismo desberdinak erabiliko ditugu, legazpiarrek politika publikoari buruzko erabakietan parte hartzeko aukera izan dezaten.



## *Gure Legealdi Plana*

Legealdi Plana, zer da?: gure ikuspegia lortzeko eta gure balioekin bat datozen helburuak betetzeko xedearekin, seriotasunez aukeratutako eta lehenetsitako ekintzen multzoa da.

Azkeneko urteotan testuinguru berri bat gailendu da eta testuinguru horretan Udalek tokiko eremuko kudeaketa garatu behar dute.

1. Eremu horretan garrantzi handia duten eta haietan eragin zuzena duten araudi berriak hartu behar ditugu kontuan:
  - a. Aurrekontuen Egonkortasuna arautzen duen Legea.
  - b. Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzko Legea.
  - c. Gardentasunari, Informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko Legea.
  - d. Laster onartzea espero dugun Euskal Udal Legea.
2. Joera ekonomikoek eta sozialek eragin zuzena dute gizartean baina baita, bereziki, toki administrazioan ere. Besteen artean honako hauek aipa ditzakegu:
  - a. Teknifikazioa bizitzaren esparru guztietan.
  - b. Biztanleen zahartzea.
  - c. Iraunkortasunaren aldeko kezka gero eta handiagoa.
3. Jasaten ari garen krisialdi finantzario eta ekonomiko luzearen ondorioz dauden aurrekontu-mugak. Diru-sarrerak gutxitzen doazen bitartean, etengabe areagotzen dira behar sozialak.
4. Azkenaldiotan agerian jarri diren gizartearen eskari garrantzitsuek Toki Administrazioaren eta herritarren arteko harremanetarako eredu berria marrazten dute. Honako kontzeptuez ari gara: gardentasuna, parte hartzea, arrazionalizazio, jokabide etikoa, eredugarritasuna,... eta abar.

Udalak, beraz, Legazpiri eta legazpiarrei balio erantsia emango dien administrazioa izan behar duela onartu behar du eta bere egin behar du erronka hori: alde batetik, lurralde-aktibo gisa, kalitateko zerbitzu publikoak eskainiz eta, bestetik, gobernu gisa, jarduera ekonomikoarekin, enpleguarekin, kultur bizitasunarekin, iraunkortasunarekin, integrazioarekin,... eta bestelako gaiekin zerikusia duten proiektuetan, proiektu partekatu bat osatzea sustatuz eta haren formulazioan parte hartzea bultzatuz.

Segidan, gure helburuak jasotzen ditugu, haiek lortzeko aukeratu ditugun ekintzak, ekintza horiek gauzatzearen ardura duten politikariak eta teknikariak eta kronograma, hori guztia arloka ordenatuta: antolaketa, lurraldea eta herritartasuna.



## *Antolaketa*

Atal honetan jasotako ekintzak azaltzen hasi aurretik, Legazpiko Udaleko Antolaketa arlo berria osatzen duten zerbitzuak identifikatuko ditugu:

- Idazkaritza
  - Artxiboa
  - Langileak
- Ekonomia eta Ogasuna
- Berrikuntza
- Herritarrentzako arreta eta arte hartzea

Legazpiko Udaleko Antolaketa arloak lau helburu estrategikotan egituratu du bere parte hartzea. Helburu horietako bakoitzak helburua bera lortzeko ahalbidetuko dituen ekintzak, jardunbideak edo proiektu zehatzak biltzen ditu.

Hauek dira lau helburu estrategiko nagusiak:

- Herritarrekin dugun harremana behar bezala kudeatu
- Antolaketa-egitura hobetu eta egokitu
- Erakundeko giza kapitala garatu, gaitu eta balioetsi
- Eremu publikoan gobernantza ona, administrazio ona eta etika sustatu.



ANTOLAKETA



HELBURUA	EKINTZAK	AURREKONTU ESTIMATUA	ARDURADUNAK	KRONOGRAMA																		
				2015	2016	2017	2018	2019														
Herritarrekin dugun harremana behar bezala kudeatu	Herritarren arretarako zerbitzu integrala ezartzea (HAZ)	200.000,00 €	K. Olabide/A. Mendingueta F. Arakama																			
	Izapide administrazioen eskuliburua berrikustea eta sinplifikatzea	Barne baliabideak	K. Olabide/F. Arakama																			
	Zerbitzuen katalogoak egitea	Barne baliabideak	Arloko zinegotziak eta koordinatzaileak																			
	Zerbitzu-kartak egitea	9.000,00 €	Arloko zinegotziak eta koordinatzaileak																			
	Arian-arian, zerbitzu telematikoen katalogoa handitzea	42.000,00 €	K. Olabide/K. Arruebarrena																			
	Eskaintzen diren zerbitzuak eta produktuak behar bezala jakinaraztea, horretarako dauden baliabideak eraginkortasunez erabiliz (Webgunea, erakundeen atariak, SMS, whatsapp..)	40.000,00 €	Arloko zinegotziak eta koordinatzaileak																			
	Beste Administrazioekin elkarrekin jardutea bultzatzea	22.000,00 €	K. Olabide/K. Arruebarrena																			
Erakundearen egitura hobetu eta egokitu	Lanpostuak erakundearen egiturara egokitzea, polibalentzia bultzatuz	19.000,00 €	K. Olabide/A. Urruela																			
	Arian-arian, modulu guztiak programa informatikoan sartzea: Erregistroa, Espedienteak, Ondarea eta Langileak	30.000,00 €	K. Olabide/F. Arakama K. Arruebarrena																			

## ANTOLAKETA



HELBURUA	EKINTZAK	AURREKONTU ESTIMATUA	ARDURADUNAK	KRONOGRAMA																
				2015	2016	2017	2018	2019												
Erakundearen egitura hobetu eta egokitu	Espedienteen kudeaketan sinadura elektronikoa ezartzea eta, arian-arian, espediente elektronikoa ezartzeko urratsak ematea	1.000,00 €	K. Olabide/ F. Arakama K.Arruebarrena/I. Gastañares																	
	Funtzioak eguneratzea eta Jardunaren Ebaluazioan aurrera egiteko urratsak ematea	Barne baliabideak	K. Olabide/A. Urruela I. Gastañares/F. Arakama																	
	Irudi korporatiboa eta erakundearen egitura berria bateratzea.	15.000,00 €	K. Olabide/F. Arakama																	
	Erakunde osoan euskara lan Hizkuntza izan dadin urratsak ematea	Barne baliabideak	K. Olabide/I. Urzelai																	
Erakundeko giza kapitala garatu, gaitu eta balioetsi	Udal langile publikoentzako Prestakuntza plan bat diseinatzea	Barne baliabideak	K. Olabide/A. Urruela																	
	Udal langileen belaunaldi-errelebo egokia kudeatzeko Plana diseinatzea	9.000,00 €	K. Olabide/A. Urruela																	
	Departamentuen artean langileak trukatzeko programa garatzea	Barne baliabideak	K. Olabide/A. Urruela																	

# ANTOLAKETA



HELBURUA	EKINTZAK	AURREKONTU ESTIMATUA	ARDURADUNAK	KRONOGRAMA																	
				2015	2016	2017	2018	2019													
Eremu publikoan governantza ona, administrazio ona eta etika sustatu	Kode etikoa eta jokia onartzea	Barne baliabideak	K. Olabide/I. Gastañares																		
	Gardentasunaren Ataria garatzea eta martxan jartzea	8.000,00 €	K. Olabide/I. Gastañares																		
	Herritarren parte hartzerako estrategiak definitzea, erabakitzeko prozesuetan politika publikoak diseinatzerakoan.	Barne baliabideak	F.J. Iraeta/I. Hernandez																		
	Zerbitzu bakoitzaren kudeaketa adierazleen bidez ebaluatze sistema zehaztea	Barne baliabideak	K. Olabide/F. Arakama																		



## *Antolaketa*

### 1. Herritarrekin dugun harremana behar bezala kudeatu.

#### *a) Herritarren arretarako zerbitzu integrala ezartzea (HAZ).*

Herritarren arretarako zerbitzu integrala herritarrentzako erreferentziatzeko udal zerbitzua dela ulertzen dugu. Bertan, modu integralean eskainiko dira udal zerbitzu gehienak: informazioa, izapidetzea eta kudeatzea, horretarako bide desberdinak erabiliz: aurrez aurrekoa, telefono bidezkoa eta telematikoa. Erabatekoa izango da zerbitzu bokazioa eta hori lortze aldera egongo da zerbitzua eratua eta diseinatua, herritarrek Udalarekin izango duten komunikazioa eta harremana erosoan izan dadila erraztuz.

#### *b) Izapide administratiboen eskuliburua berrikustea eta sinplifikatzea.*

Herritarren arretarako zerbitzu integrala ezartzeko "ezinbesteko" baldintza da Izapideen edo Prozeduren eskuliburu bat izatea. Legazpiko Udalak badu eskuliburu hori aurreko legegaldi bukaeran amaitu zuelako lan hori baina hura berrikustea eta sinplifikatzea da aurrean dugun erronka berria.

#### *c) Zerbitzuen katalogoak egitea.*

Aplikagarria den legeriak tokiko administrazioak derrigorrez prestatu behar dituen zerbitzuak zehazten dituen eskumen-markoa eskaintzen du.

Hala ere, Legazpiko Udalak, egiatan, legeak ezarritako gutxieneko eskumen-eremua gainditzen duten beste zerbitzu batzuk eskaintzen ditu, modu horretan gertutasunaren eta subsidiarioritasunaren irizpideen arabera, tokiko beste administrazioen berezko zerbitzu osagarriak eskainiz.

Eta haxe da gure nahia: zabalduko zerbitzuen katalogo hori udal administrazioan behar bezala integratzea.

#### *d) Zerbitzu-kartak egitea*

Udal zerbitzu bakoitzak dokumentu bat osatuko du non, prestatzen diren zerbitzuak jasotzeaz gain, argi eta garbi azalduko dituzten zerbitzu hobeagoa eskaintzeko eskuratzen dituzte kalitateko konpromisoak. Zerbitzu-karta horiekin, honakoak lortu nahi ditugu:



1. Udala herritarrengana hurbiltzea.
2. Herritarrei administrazio-atalek prestatzen dituzten zerbitzuei buruzko informazioa ematea.
3. Udalak udal zerbitzuak hobetzen egiten duen ahalegina azaltzea.
4. Zerbitzuen kalitate-maila egokia ezartzea eta haiek manten daitezela kontrolatzea.
5. Herritarrei aukera eskaintzea udal zerbitzuen funtzionamenduari buruz duten iritzia eman dezaten.

*e) Arian-arian, zerbitzu telematikoen katalogoa handitzea.*

Herritarrek zerbitzu publikoetara sarbide elektronikoa izateari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legea, eskubideen erabilera eta obligazioen betetzea bitarteko elektronikoz gauzatzen laguntzeko helburuarekin promulgatu zen.

Garai hauetan teknifikazioak gero eta garrantzi handiagoa du gure harremanetan eta, horrek, eremu horretan ekintza espezifikoak garatzea aholkatzen du.

*f) Eskaintzen diren zerbitzuak eta produktuak behar bezala jakinaraztea, horretarako dauden baliabideak eraginkortasunez erabiliz (Webgunea, erakundeen atariak, SMS, WhatsApp,...)*

Aurreko puntuan esandakoa modu berean aplikatu dakioke informazioaren eta ezagutzaren gizarteari. Bide horien erabilera sustatzea herritarrengana hurbiltzeko aukera paregabea da Udalarentzako.

*g) Beste Administrazioekin elkarrekin jardutea bultzatzea.*

Elkarrekin jardutea, informazio-sistemek eta horien baitan dauden prozedurek datuak partekatzeko eta administrazioen artean informazioa eta ezagutza trukatzeko ahalbidetzeko duten gaitasuna da. Horrek herritarri zerbitzu hobea eskaintzea ekarriko du: kalitate handiko zerbitzua, azkarragoa, globalagoa eta iraunkorragoa, joan-etorriak saihestuko direlako.

## 2. Erakundearen egitura hobetu eta egokitu.

*a) Lanpostuak erakundearen egiturara egokitzea, polibalentzia bultzatuz.*

Gobernu taldeak beharrezkotzat jo zuen erakundea hiru arlo nagusitan berriz egituratzea: antolaketa, lurraldea eta herritartasuna. Egitura horrek ezinbestean eragiten du Udalaren alor politikoan (informazio batzordeak, zinegotzi ordezkariak,...) baina, era berean, lanpostuak, haien eginkizunak eta lotutako zereginak egokitzea aholkatzen du.



Zuhurtasun irizpideak egin behar hori soseguz hausnartzea eta udal langile publiko guztien parte hartzearekin egitea aholkatzen du, erakundearen ezaguera sustatuz eta zerbitzu desberdinak hobetzeko oinarritzat dugun printzipioa, hau da, polibalentzia, aplikatuz.

*b) Arian-arian, modulu guztiak programa informatikoan sartzea: Erregistroa, Espedienteak, Ondarea eta Langileak.*

Orain dela urte batzuk, pertsonen eta erakundeen datu-baseak, ahal den neurrian, bateratzeko lanari eman zion hasiera Legazpiko Udalak, udal langileei bateratutako oinarritzko egitura eta zerrenda duten erreminta informatikoak eskainiz. Erreminta horiek egokiagoak dira egun bizi dugun garairako baina ez ditugu kudeatzeko orduan eraginkortasun-irizpideak ahaztu behar.

Egun, honako moduluak ditugu integratuta: errolda fiskalak, diru-bilketa, kontabilitatea eta biztanleen errolda, besteen artean. Etorkizun hurbilean, sarrera/irteera erregistroaren modulua ezarriko da.

*c) Espedienteen kudeaketan sinadura elektronikoa ezartzea eta, arian-arian, espediente elektronikoa ezartzeko urratsak ematea.*

Aurreko puntuarekin bat etorritz, espediente elektronikoa garatzeak ondorioak ditu maila administratibo askotan: zerbitzua hobetzean, administrazioaren arintzean eta sinplifikatzean, iraunkortasun ekonomikoan eta ingurumenekoan,... eta abar.

Jardunbide honek aldaketa ugari ekarriko ditu, baina helburu adierazgarria eta lortzeko erraz samarra du: ahalik eta prozesu gehienetan sinadura digitala ezartzea.

*d) Funtzioak eguneratzea eta Jardunaren Ebaluazioan aurrera egiteko urratsak ematea.*

Enplegatu publikoaren Oinarritzko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legean jasotakoaren arabera, jarduna ebaluatzeke prozeduraren bidez neurtu eta balioetsiko dira laneko jokabidea eta errendimendua edo emaitzen lorpena.

Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutua garatu gabe dagoen arren, arlo horren garapenean esperientzia positiboak daude eta horiek arakatu behar direla uste dugu.

*e) Irudi korporatiboa eta erakundearen egitura berria bateratzea.*

Azken garai hauetan, erabat aldatu da herritarrek erakunde publikoei buruz duten irudia. Herritarrengandik oso urrun zeuden erakundeak zirela pentsatetik guztion zerbitzura dauden erakundeak direla pentsatzera pasatu da eta herria haiekin identifikatuta sentitzen da. Hori bereziki halaxe da Udalen kasuan.



Horregatik, premiazkoa dela uste dugu irudi hori gaurkotzea eta egungo garaietara egokitzea, hau da, herritarrei Plan honetan jasotako balioak transmitituko dien irudia eskaintzea: eraginkortasuna, gardentasuna, hurbiltasuna, modernitatea,... eta abar.

*f) Erakunde osoan euskara lan hizkuntza izan dadin urratsak ematea.*

Horixe da joan den 2013ko ekainaren 26ko Udal Korporazioaren Osoko Bilkurak udaletxean euskararen erabilera bultzatzeko onartu zuen V. planean jasotako helburu nagusia. Horrela, Euskadiko Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialak bi izanik, Udalak herritarrei eskaintzen dizkien zerbitzuak bi hizkuntza horietako edozeinetan eskainiko diela bermatuko du; hala ere, erakundearen lan hizkuntza euskara izatera iristeko urratsak emango dira, horretarako hainbat neurri hartuz, hala nola, prestakuntza-saioak, aplikazio informatikoen egokitzapena, hizkuntza-aholkularitza,...

### 3. Erakundeko giza kapitala garatu, gaitu eta balioetsi.

*a) Udal langile publikoentzako Prestakuntza Plan bat diseinatzea.*

Erakundearen aktibo nagusia balioetsi nahi dugu: langileak. Horretarako, haien prestakuntza sistematizatu, baloratu eta sustatu nahi dugu. Ongi prestatutako funtzionario eta arduradun politikoak izateak erakundearen elkartasuna bermatzen du eta, era berean, herritarrei eskainiko zaien zerbitzuaren kalitatea hobetzea sustatzen du.

*b) Udal langileen belaunaldi-errelebo egokia kudeatzeko Plana diseinatzea.*

Euskal erakunde sarean, oro har, eta baita Legazpiko udaletxean ere, langileen zahartzea arazo larria izango da epe ertainean.

Arazo hori jakina eta aurreikus daitekeena izanik, ez dugu konponbidea azkeneko ordurako utzi behar. Horregatik, lehentasunezko kontua da erakundea ezagutzea. Ezagutza hori ezin dugu inola ere galdu.

*c) Departamentuen artean langileak trukatzeko programa garatzea.*

Langileak trukatzeko proposatzen dugun programarekin aukera eskainiko diegu enplegatu publikoei udaletxe barruko beste lanpostuetako funtzionamendua ezagut dezaten.

Horrekin, udal enplegatu publikoen artean erakundearen gaineko ezagutza zabaltzea, polibalentzia sustatzea eta talde bateko kide izatearen sentimendua indartzea nahi da.



#### 4. Eremu publikoan gobernantza ona, administrazio ona eta etika sustatu.

##### *a) Kode etikoa eta jokaerarena onartzea*

Kode etikoa eta jokaerarena onartuko dugu.

##### *b) Gardentasunaren Ataria garatzea eta martxan jartzea.*

Udalak martxan jarri ditu joan den 2013ko azaroaren 28an onartu zen Gardentasunari, Informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko Legea betetzeko mekanismoak. Lege horretako artikulua askotan jasotakoa gerora betetzekoa da baina 2016an hartuko du legeak erabateko indarra. Legazpiko Udala dagoeneko parte hartzen ari da Gipuzkoako Foru Aldundiko Gipuzkoa Irekia izeneko proiektuan, legean jasotako eskakizunei erantzun ahal izateko.

Hala ere, lege baten eskakizunak betetze hutsa baino gehiago, gardentasuna jarrera bat dela uste dugu. Eta horrek, erakundearen jardunean inplikaturako parametroak, faktoreak eta agenteak etengabe eragitea eta berrikustea eskatuko du.

##### *c) Herritarren parte hartzerako estrategiak definitzea, erabakitze prozesuetan politika publikoak diseinatzerakoan.*

Azkenaldiotan, parte hartzearen kontzeptuak gero eta indar handiagoa hartu du jarduera publikoan.

Parte hartzea bermatu beharra dugu eta parte hartze hori eraginkorra eta orokortua izan behar da eta herriko bizitzaren eremu guztietan eman behar da.

##### *d) Zerbitzu bakoitzaren kudeaketa adierazleen bidez ebaluatze sistema zehaztea.*

Testu osoan Administrazio Publikoan balio berriak sartu direla aipatzen ari gara etengabe. Eraginkortasunaren eta efizientziaren printzipioak ez dira horietakoak, aspaldian direlako erreferentea udal jardunean.

Hala ere, balio horietan sakontzeko unea iritsi da. Modu berean, zerbitzuak ebaluatzea eta haiek hobetzeko erabakiak hartzea ahalbidetuko duen informazioa eskainiko duten adierazleen bidez neurtzeko kultura ezarri behar dugu zerbitzu guztietan.





## *Lurraldea*

Agiri honetan jasotako ekintzak azaltzen hasi aurretik, Legazpiko Udaleko Lurraldea arlo berria osatzen duten zerbitzuak identifikatuko ditugu:

- Hirigintza eta Etxebizitza
- Obrak eta Zerbitzuak
- Nekazaritza
- Ingurumena
- Industria, Merkataritza eta Turismoa
- Mugikortasuna eta Garraioa

Legazpiko Udaleko Lurraldea arloak lau helburu estrategikotan egituratu du bere parte hartzea Legealdi Planean. Helburu horietako bakoitzak helburua bera lortzeko ahalbidetuko dituen ekintzak, jardunbideak edo proiektu zehatzak biltzen ditu.

Hauek dira lau helburu estrategiko nagusiak:

- Hiri-berriraketa eta berritzea sustatu
- Jarduera ekonomikoen (enpresak, dendak, nekazaritzako eta abeltzaintzako jarduerak eta turismoa) hazkundea eta enplegua bultzatu
- Ingurumen arloko jarduketak, legazpiarren bizi-kalitatea hobetzeko xedearekin
- Mugikortasuna hobetu eta aparkalekuak gehitu, herritarren beharrei erantzuteko

LURRALDEA



HELBURUA	EKINTZAK	AURREKONTU ESTIMATUA	ARDURADUNAK	KRONOGRAMA																
				2015	2016	2017	2018	2019												
Hiri-berriraketa eta berritzea sustatu	Hiri-antolamenduko Plan Orokorra eta udal ordenantzak eguneratzea	180.000,00 €	E. Galvez/I. Gastañares Lurralde arloa																	
	Kanpaina bat martxan jartzea, dagoen etxebizitza-parkearen hobetzea sustatzeko	10.000,00 €	E. Galvez/A. Mendinueta A. Frances																	
	Berrurbanizatze Integralerako Planak aztertzea	140.000,00 €	E. Galvez/A. Mendinueta A. Frances																	
	Gure auzoetako eta hiriguneko ingurunea modernizatzea eta berritzea, hiri-eremuari, instalazioei edo irisgarritasunari dagokionez eta hirigintza inklusiboa lortzeko ikuspegitik	2.150.000,00 €	E. Galvez/A. Mendinueta A. Frances																	
	Hobekuntzak haur-parkeetan eta lorategietan	780.000,00 €	E. Galvez/A. Mendinueta A. Frances																	

LURRALDEA



HELBURUA	EKINTZAK	AURREKONTU ESTIMATUA	ARDURADUNAK	KRONOGRAMA																			
				2015	2016	2017	2018	2019															
Jarduera ekonomiko (enpresak, denda, nekazaritzako eta abeltzaintzako jarduerak eta turismoa) hazkundea eta enplegua sustatu	Enplegua sustatzea eta enpresak laguntzea: Enprekin elkarrizketazubiak sortzea, lankidetzako publiko-privatua sustatuz eta Lanbide Heziketa industria-beharretara egokitu dadila bultzatuz.	30.000,00 €	E. Galvez/I. Hernandez																				
	Jarduera ekonomiko industrial berriz aktibatzea (Gerdau)	Barne baliabideak	E. Galvez/I. Hernandez A. Mendinueta/A. Gonzalez																				
	Asteroko azokan herriko produktua indartzea	24.000,00 €	E. Galvez/A. Urkiola I. Hernandez/J. Azpeitia																				
	Legazpiren irudia ardiaren inguruan bultzatzea (Artzain Eguna, Ardiaren Kofradia)	120.000,00€	E. Galvez/A. Urkiola J. Azpeitia/A. Gonzalez I. Hernandez																				
	Udalerrian Ignaziotar bidearen eragina garatzea eta sustatzea	40.000,00€	E. Galvez/I. Hernandez A. Gonzalez																				
	Aizkorri-Aratz parkea bultzatzea, erakargarria izan dadin	356.000,00€	E. Galvez/A. Urkiola A. Gonzalez/J. Azpeitia I. Hernandez																				

## LURRALDEA



HELBURUA	EKINTZAK	AURREKONTU ESTIMATUA	ARDURADUNAK	KRONOGRAMA																
				2015	2016	2017	2018	2019												
Ingurumen arloko jarduketak, legazpiarren bizi-kalitatea hobetzeko xedearekin	Herri-galdeketa antolatzea eta gauzatzea, udalerrian hondakinak biltzeko sistema erabakitzeko	6.000,00 €	K. Olabide/I. Gastañares I. Hernandez																	
	Agenda 21eko plan berria idaztea, Compact of Mayors ekimenaren baitan hartutako konpromisoak aintzat hartuz klima-aldaketari buruzko Planaren berrikuspena barne hartuko duena.	45.000,00 €	E. Galvez/A. Urkiola I. Hernandez																	
	Herriko argietan eraginkortasun energetikoa lortzeko neurriak ezartzea	300.000,00€	E. Galvez/A. Frances																	
	Baso-kudeaketa iraunkorrerako Plan Teknikoa egitea	4.000,00 €	A. Urkiola/J. Azpeitia																	
	Bide eta pista publikoak hobetzea	85.000,00€	A. Urkiola/J. Azpeitia																	
	Irizpide gisa, udal obretan birziklatutako materiala erabili beharra ezartzea	Barne baliabideak	E. Galvez/ Lurralde arloa																	
Mugikortasuna hobetu eta aparkalekuak gehitu, herritarren beharrei erantzuteko	Mugikortasun Iraunkorreko Plana eguneratzea	24.000,00 €	I. Imaz/F. Agirre I. Hernandez																	
	Junetorri zerbitzuaren prezioa berrikustea eta zerbitzuak indartzea	40.000,00€	I. Imaz/F. Agirre																	
	Egungo aparkaleku-kopurua gehitzea	80.000€	I. Imaz/F. Agirre A. Frances																	
	Latxartegi aparkalekua eraikitzea	2.500.000,00 €	I. Imaz/E. Galvez A. Mendiuetza																	



## 1. Hiri-berreraketa eta berritzea sustatu.

### *a) Hiri-antolamenduko Plan Orokorra (HAPO) eta udal ordenantzak eguneratzea.*

Indarren dagoen Hiri-antolamenduko Plan Orokorra joan den 2007an egin zen. Urte haiek ondasun higiezinaren burbuilaren urteak ziren eta, beraz, bertan jaso diren aurreikuspen batzuk ez datoz bat egungo beharrekin. Horregatik, egungo hirigintza-egoera aztertzea proposatzen da, etorkizuneko beharretara egokituko den hirigintza-proposamen bat garatu ahal izateko. Modu berean, plan horretatik etorriko diren ordenantzek plana aldatzea edo egokitzea eska dezakete, kasuan kasu.

### *b) Kanpaina bat martxan jartzea, dagoen etxebizitza-parkearen hobetzea sustatzeko.*

Legazpin eraikitako etxebizitza gehienak joan den mendeko 40. hamarkadan eta 60-70 urteetan egin ziren; inportantea da, halaber, 90. hamarkadan eta 2000. urte inguruan eraikitako etxebizitza-kopurua. Horrek esan nahi du, egungo bizi-beharretara (batik bat erosotasun termikoari eta irisgarritasunari dagokionez) egokitzen ez diren etxebizitza asko daudela Legazpin. Egoera espezifiko bakoitzaren azterketa xehatua egin ahal izateko Eraikinen Ikuskapen Teknikoak (EITak) idaztea sustatuko da, dagoen etxebizitza-parkea hobetzeko xedearekin.

### *c) Berrurbanizatzeko Integralerako Planak aztertzea.*

Gure udalerriko hainbat auzoren hirigintza-egoerak azterketa globala egitea eskatzen du. Azterketa horretan, auzoetan dauden zerbitzuak berritzea aurreikusiko da eta, horrezaz gain, hiri-eremu publikoaren egokitzapena aztertuko da, hobekuntza energetikoarekin eta eremu horietan dagoen etxebizitza-parkearen irisgarritasunarekin batera.

Proposatzen ditugun plan horiek bertan jasotakoa gauzatzeko kanpoko finantzazioa (Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, Europar Batasuna,...) bilatzea izango dute helburu.

### *d) Gure auzoetako eta hiriguneko ingurunea modernizatzea eta berritzea, hiri-eremuari, instalazioei edo irisgarritasunari dagokionez eta hirigintza inklusiboa lortzeko ikuspegitik.*

Aurreko puntua gorabehera, Udalak gure auzoetako eta hiriguneko ingurunea modernizatzeko eta berritzeko konpromiso irmoa du, batik bat hiri-eremuari, instalazioei eta irisgarritasunari dagokionez (adibidez igogailu inklinatuak, eskailera mekanikoak, arrapalak,... jarriz) eta, betiere, hirigintza adiskidetsua eta inklusiboa lortzeko ikuspegitik.



Gure udalerraren itxura berezia da eta auzo ugari ditu goialdeko eremuetan. Hori, eta herritarren zahartze naturala ematen ari dela aintzat hartuz, hirigintza arloko hainbat kontu hobetu beharrean gaude. Irisgarritasunaren arazoari dagoeneko eman zaio irtenbidea igogailu bertikalak jarritz. Horri esker, zerbitzu gehienak kokatzen diren hirigunetik goialdeko auzoetara joateko dauden aldapak gainditzea lortu da. Datozen urteetan, auzo horietara iristea hobetuko duten hirigintza-jarduketa berriak gauzatu behar dira.

Horretarako, igotzeko sistemak jartzea aztertuko dugu, hala nola, igogailuak, arrapalak edo eskailera mekanikoak. Kasu bakoitzean aztertuko da zein sistema erabiltzea komeni den eta erabiliko dena dauden aldapetan integratuko dira. Modu berean, irisgarritasuna hobetzen jarraituko dugu eta instalazio orokorrak lurperatzea eta modernizatzea aztertuko da; adibidez, herriko argiak eta elektrizitate-sarea, ur-hornidura edo ur zikinen eta euri-uren saneamendu-sarea.

#### *e) Hobekuntzak haur-parkeetan eta lorategietan.*

Gure udalerrian ugariak dira egun euritsuak urtean zehar eta horren ondorioz lehentasunezko zat begiesten da haur-parkeak estaltzea. Horregatik, haurren aisiarako haur-parkeak estaltzea proposatzen dugu. Ildo beretik, parke bio-osasungarriak eraikitzea bultzatuko dugu, aire librean ariketa fisikoa egitea ahalbidetuko duten parkeak alegia eta baliabide ekonomiko gehiago erabiliko dugu gure lorategiak hobetzeko eta zaintzeko.

## 2. Jarduera ekonomikoen (enpresak, dendak, nekazaritzako eta abeltzaintzako jarduerak eta turismoa) hazkundera eta enplegua sustatu.

### *a) Enplegua sustatzea eta enpresak laguntzea: enprekin elkarrizketa-zubiak sortzea, lankidetzaren publiko-pribatua sustatuz eta Lanbide Heziketa industria-beharretara egokitu dadila bultzatuz.*

Gure lehentasunetako bat enplegu iraunkorra eta kalitatekoa lortzea da; horretarako, herriko enpresak bisitatzeko kronograma bat diseinatuko dugu, haien beharrak ezagutzeko xedearekin. Programa hori UGGASArekin lankidetzan egingo da, zerbitzuen bikoiztasuna eman ez dadin.

Lan gabe dauden pertsonak lan-merkatura sartzea da legegaldi honetako beste lehentasunetako bat. Horretarako, Lanbiderekin eta UGGASArekin elkarlanean, langabezia dauden pertsona horiek berriro lan-merkatura sar daitezzen errazteko planak garatuko ditugu.



Ekimen ekonomiko pribatuarekin komunikazio- eta lankidetzabideak irekiko edo jarriko ditugu martxan. Horren adibide izan daitezke Merkataritzako Mahaia edo enpresak bisitatzeke programa berriz aktibatzea.

Enpresen eta inguruko hezkuntza-zentroyen arteko harremana bultzatuko dugu, gure udalerrian lanpostuak betetzeari begira egon daitezkeen prestakuntza-gabeziak identifikatzeko.

*b) Jarduera ekonomiko industrial berriz aktibatzea (Gerdau).*

Sprilur erakundearekin eta Gerdau enpresarekin egingo dugu lan, enpresa hori kokatzen den eremuan, eta gaur egun txatarra pilatzeko erabiltzen dena, gure udalerrirako motor ekonomiko gisa berriz aktibatzeke, enpresa berriak ezartzeko aukera ahalbidetuz eta, era berean, Legazpiko edo beste udalerrri batzuetako enpresei haiek garatzen duten jarduera zabaltzeke aukera eskainiz.

*c) Asteroko azokan herriko produktua indartzea.*

Asteroko azokan gure herriko ekoizleen presentzia mantendu eta indartu nahi dugun gauza da. Asteroko azokan herriko produktua indartzeak ez du salmenta-postuen kopurua edo horien entitatea handitzea esan nahi. Produktua indartzea diogunean, azokan eskaintzen diren produktuetatik gehienak herrikoak izan daitezela esan nahi dugu.

Asteroko azokako salmenta-postuetan dauden herriko ekoizleen irudia hobetuko dugu, jarduera ekonomiko horiek sustatzeko xedearekin.

*d) Legazpiren irudia ardiaren inguruan bultzatzea (Artzain Eguna, Ardiaren Kofradia).*

Legazpiren historiaren zati garrantzitsu bat berreskuratzea nahi dugu: olagizonen eta artzainen arteko harremana. Horretarako, ardiaren produktuak sustatzeko eta laguntzeko ekintzak antolatuko ditugu (ardi-okela, buzkantzak, mamia, artilea,...). Legazpiko baserrietan ardiaren biziraupena bera bultzatu nahi dugu, Artzain Eguna indartu eta Legazpi bi mundu horien, ardiaren eta burdinaren, arteko harremanaren erreferente bihurtu nahi dugu.

*e) Udalerrian Ignaziotar bidearen eragina garatzea eta sustatzea.*

Ignaziotar bidea Legazpitik igaro da eta, beraz, gure udalerrira erromes doazen pertsonen kopuru garrantzitsua hurbilduko dela aurreikusten dugu. Hortaz, Ignaziotar Bidean leku onean utziko gaituzten alderdiak indartu behar ditugu. Horrela, diskurtso egokia osatu eta bideratu behar dugu Loiolako Ignazio "gerrillariaren" irudiaren inguruan, burdinaren eta burdinolen munduarekin erlazionatuz. Bestetik, erromesei begira beharrezkoa da azpiegiturak egokitzea eta legazpiarrentzako etekina lortzea ahalbidetuko duten zerbitzuak eskaintzea.



*f) Aizkorri-Aratz parkea bultzatzea, erakargarria izan dadin.*

Arabaolaza, Brinkola, Telleriarte eta Mirandaola arteko lurretan dagoen Kultura- eta Natura-ondarearekin eta habitatarekin zerikusia duten elementuak berreskuratu, sustatu eta balioetsi nahi ditugu. Horretarako, egungo Burdinaren Museoa Parketxea bihurtzea da asmoa eta, bertan, mendeetan zehar garatu den historia bateratuaren (Naturarena eta Gizakiarena) ondorio eta isla den Parke Naturalaren egungo paisaia azalduko da. Horrela, gizakiaren bizileku hori zeharkatuko duen ibilbidea sortuko genuke Legazpiren eta Parkearen irudia indartuz eta Legazpik Aizkorri-Aratz Parke Naturalerako sarrera edo irteera izan dezan.

### 3. Ingurumen arloko jarduketak, legazpiarren bizi-kalitatea hobetzeko xedearekin.

*a) Herri-galdeketa antolatzea eta gauzatzea, udalerrian hondakinak biltzeko sistema erabakitzeko.*

Legazpin hondakinak biltzeko erabiliko den sistema erabakitzeko galdeketa antolatzeko, Arartekoaren abenduaren 28ko 12/2011 Gomendio orokorra aplikatuko da. Demokrazia eta herritarren parte hartzea. Batez ere, ingurumen-prozesuetako parte hartzea.

Lantalde bat eratuko da erabiliko den prozedura lantzeko eta prozedura hori Osoko Bilkurak onartuko du. Segidan, dagokion baimena jaso ondoren herri-galdeketa gauzatuko da. Galdeketa eremaitzak errespetatzeko konpromisoa hartzen dugu.

*b) Agenda 21eko plan berria idaztea, Compact of Mayors ekimenaren baitan hartutako konpromisoak aintzat hartuz klima-aldaketari buruzko Planaren berrikuspena barne hartuko duena.*

Agenda 21eko Tokiko Ekintza-plana berrikusiko dugu eta prozesu hori (dokumentazioa, barne-gogoeta, herritarren parte hartzea...) planean jasotako estrategia garrantzitsuenak berrikusteko erabiliko dugu; horrela, adibidez, klima-aldaketaren aurka egiteko Programa (arintze eta egokitzapen alderdiak) eta Mugikortasun Iraunkorraren Plana berrikusiko dira.

*c) Herriko argietan eraginkortasun energetikoa lortzeko neurriak ezartzea.*

Legazpiko Udala 2020. urte bitarteko udalerriko plangintza energetikoa ari da garatzen. Plangintza hori Energiaren Euskal Erakundearekin batera "Alkateen Itinerantz" izeneko ekimenaren baitan diseinatu da. Eraginkortasun energetikoa lortzeko zehaztu diren neurriek honako helburuak dituzte:





karbono dioxidoaren (CO<sub>2</sub>) isurketak murriztea eta egungo baliabide energetikoak erabiltzea, modu horretan mantentze- eta hornitze-gastuak murriztea ahalbidetuz.

Halaber, herriko argien koadro elektrikoak aztertzea aurreikusten da honako helburuekin: potentzia erregulatzea egungo kontsumoetan oinarritua, linea elektrikoak berdintzea eta fluxu erregulatzailerak edo ordu-erregulagailuak ezartzea.

Argi batzuk ere kentzea aurreikusten da, batik bat, argi-kutsadura sortzen dutenak eta ezarritako potentzia murriztuko da. Halaber, udalerriko hainbat gunetan LED argiak jarriko dira. Hori guztia, Behe-tentsioko erregelamendu elektroteknikoan eta Eraginkortasun energetikoari buruzko Errege-dekretuan ezarritakoaren arabera.

#### *d) Baso-kudeaketa iraunkorrerako Plan Teknikoa egitea.*

Baso-kudeaketa iraunkorrerako aurreko Plan Teknikoa 2014an bukatu zen eta, beraz, Plan berria egitea bultzatuko dugu. Plan horrek martxan jarri ziren jarduketak eta sortu ziren arazoak hartuko ditu aintzat, egungo beharretara eta lortu nahi diren helburuetara egokitutako plana izan dadin.

#### *e) Bide eta pista publikoak hobetzea.*

Udal inbentarioa osatzen duten bideen sarea (baserrietara nahiz baso-bideetara doazenak) konpondu beharrean dago, bide gehienak orain dela hogeit hamar urte baino gehiago eta sare elektrosoldaturik gabe egindakoak direlako. Ibilgailuen igarotzeak, erosioak eta mendi-hegalen mugimenduek kalte ugari eragin dute. Beraz, azterketa globala egitea komeni da eta pistaren egoeraren eta haren bidez prestatzen den zerbitzuaren arabera, lehentasunak zehaztu behar dira.

#### *f) Irizpide gisa, udal obretan birziklatutako materiala erabili beharra ezartzea.*

Agenda 21aren prozesuaren barruan, eta Legazpiko Udala arlo horretan Euskadin erreferente nagusienetakoa dela ahaztu gabe, eta Hirigintza departamentuaren jarduketa gisa, irizpide berri bat ezarri nahi da: birziklatutako materialak erabiltzea eta material berriak ez kontsumitzea. Horretarako, behar izanez gero, joan den 2009ko abuztuaren 10eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen "Klima-aldaketaren aurka egiteko udal Ordenantza" birmoldatuko da. Ordenantzak honela dio zioen azalpenean: "...gaur egun mundu osoak nabaritzen duen klima aldaketak eragin handia du ingurumenean, baita biztanleengan ere...". "Klima aldaketa arazo globala izanik, hala ere gutako bakoitzak badugu harengan eragiteko behar den gaitasuna. Gure eguneroko portaeran aldaketa txiki batzuk eginda ere, berotegi-efektuko gasen isurketak saihestea lor dezakegu eta horrek ez luke eraginik izango gure bizi-kalitatean."

Horren haritik, lurra botatzeko gune bat egokitzea proposatzen da, egingo diren lur-mugimenduen ondoren lur hori udalerritik irten ez dadin eta gure udalerrian bertan berrerabil dadin.



#### 4. Mugikortasuna hobetu eta aparkalekuak gehitu, herritarren beharrei erantzuteko.

##### *a) Mugikortasun Iraunkorreko Plana eguneratzea.*

Epe ertainean gertatuko diren hiri-garapenetan mugikortasunaren arloko aurreikuspen berriak zehaztea komeni da.

Mugikortasun Iraunkorreko Planaren helburuak, estrategiak eta ekintzak eguneratu nahi dira eta, sinergiak aprobetxatuz, lan hori Agenda 21eko Tokiko Ekintza-planaren berrikuspenarekin batera egin nahi da.

##### *b) Junetorri zerbitzuaren prezioa berrikustea eta zerbitzuak indartzea.*

Udal garraio publikoa indartu nahi dugu, Legazpiko mugikortasun iraunkorraren ardatzetako bat den aldetik. Gure helburua Junetorri zerbitzua doan eskaintzea da baina, hala ere, borondate hori zerbitzu-erabiltzaileen beharretara eta eskarietara egokitu beharko da.

##### *c) Egungo aparkaleku-kopurua gehitzea.*

Laubide auzoan zenbaki bakoitiak duten atarien ingurunea urbanizatzeko lanak egiteko, bideko zorua hobetzeko eta auzoan dagoen aparkalekuan seinaleak jartzeko asmoa dugu. Lan ildo beretik, bide bat egokituko dugu Korosti aldetik datozen hirugarren mailako ibilgailuek irteteko maniobrak arazorik gabe egin ditzaten.

Industrialdean aparkatzeko arazoak dituzte bertako enpresetan lan egiten duten langileek. Horregatik, Industrialdean aparkaleku bat egokitu nahi dugu (paper-fabrika inguruan) Urola Industrialdean eta Azpikoetxe inguruan aparkatzeko arazorik egon ez dadin. Neurri horrekin Industrialdean gaur egun dagoen anabasa arintzea nahi dugu eta kamioiak aparkatzeko gunea berrantolatu nahi dugu, horietarako udalerrian leku bakarria sortuz.

Aldi baterako eta Latxartegin aurreikusi den lurpeko aparkalekua egin bitartean, eta zonaldean (Osasun-zentroa, Kultur Etxea, Gizarte-zentroa eta ikastola) dauden beharrak asetzeko xedearekin, Juanastegi kalean gaur egun dagoen bidegorrian aparkatzeko hainbat plaza egokituko dira. Aparkaleku horietatik batzuk -23 plaza- garai zehatz baterako izango dira, azarotik maiatzaren 15era, eta beste batzuk -29 plaza- urte osorako izango dira. Bestetik, Juanastegi kalean lehendik zeuden aparkalekuetan denbora mugaturako 10 plaza egokituko dira. Latxartegiko lurpeko aparkalekua egin ondoren, berriro irekiko da bidegorria.



*d) Latxartegiko aparkalekua eraikitzea.*

Aparkatzeko antzemandako beharrak aintzat hartuta, hirigunean aparkaleku bat eraikitzea legealdi honetako lehentasunezko eginbeharra dela uste dugu.

Horretarako, eraikitze-proiektu berri bat egin beharko da eta aparkalekuaren eraikitzea finantzatzeko formulak arakatu eta aztertu beharko dira.



## *Herritartasuna*

Agiri honetan jasotako ekintzak azaltzen hasi aurretik, Legazpiko Udaleko Herritartasun arlo berria osatzen duten zerbitzuak identifikatuko ditugu:

- Gizartekintza, Berdintasuna eta Lankidetzza
- Kultura, Euskara eta Aisia
- Gazteria eta Hezkuntza
- Kirola
- Herritarren Segurtasuna eta Babes Zibila

Legazpiko Udaleko Herritartasun arloak bost helburu estrategikotan egituratu du bere parte hartzea Legealdi Planean. Helburu horietako bakoitzak hura lortzeko ahalbidetuko duten ekintzak, jardunbideak edo proiektu zehatzak ditu.

Hauek dira bost helburu estrategiko nagusiak:

- Herritarren garapen integrala sustatu, arlo desberdinetan eskaintza egokia eginez: Gizarte zerbitzuak, kultura, kirola eta aisia.
- Herritarren segurtasuna bermatu.
- Konpromisoa sustatu gizarte-garapenarekin, berdintasunerako aukerekin eta euskararen erabilerarekin.
- Udalerriko elkarteak dinamizatu, sustatu eta balioetsi.
- Instalazioak, ekipamenduak eta teknologiak egokitu, eskuragarriak, lagunkoiak eta herritarren beharretara egokitutakoak izan daitezzen.

# HERRITARTASUNA



HELBURUA	EKINTZAK	AURREKONTU ESTIMATUA	ARDURADUNAK	KRONOGRAMA					
				2015	2016	2017	2018	2019	
Herritarren garapen integrala sustatu, arlo desberdinetan eskaintza egokia eginez: Gizarte zerbitzuak, kultura, kirola eta aisia	Udal talde desberdinetan ariketa fisikoa sustatzea	Barne baliabideak	I. Imaz/P. Garmendia						
	Zahartze aktiboa sustatzea, ahal den autonomia-maila handiena lortzeko	5.000,00€	F.J. Iraeta/L. Garcia						
	Haurrak, nerabeak eta gazteak artatzeko sistema integrala garatzea (Gaztematika)	97.000,00€	E. Galvez/I. Sanz						
	Herritarren artean kultur adierazpen desberdinak sustatzea, haien aisialdian kultur adierazpen horiek txerta ditzaten, horretarako kultur ekimenen eskaintza handituz	100.000,00€	I. Imaz/J. Dorronsoro						
	Irakurzaletasuna bultzatzea, Liburutegia ezagutzera ematea eta bere erabilera areagotzeko ekintzak antolatzea	Barne baliabideak	I. Imaz/J. Erostarbe						
	Liburutegia sortu izanaren 50. urteurrena ospatzea	5.000,00€	I. Imaz/J. Erostarbe						
Herritarren segurtasuna bermatu	Udalerriko Larrialdi Plana eguneratzea	4.000,00€	I. Imaz/F. Agirre A. Frances						
	Larrialdietarako Zerbitzuak herriko kale guztietara irits daitezela bermatzea.	Barne baliabideak	I. Imaz/F. Agirre						

# HERRITARTASUNA



HELBURUA	EKINTZAK	AURREKONTU ESTIMATUA	ARDURADUNAK	KRONOGRAMA																
				2015	2016	2017	2018	2019												
Konpromisoa sustatu gizarte-garapenarekin, berdintasunerako aukerekin eta euskararen erabilerarekin	Euskararen erabilera sustatzea herriko esparru guztietan: kirola, merkataritza, gazteria, etorkinak,... eta abar	12.000,00€	I. Imaz/I. Urzelai																	
	Antolatuko diren ekintzetan garapen iraunkorra izango da ardatza	Barne baliabideak	I. Imaz/A. Urkiola I. Hernandez																	
Udalerriko elkarteak dinamizatu, sustatu eta balioetsi	Jai nagusiak, auzoetakoak eta tradiziozkoak gorde, indartu eta eguneratzea, lan hori herriko elkarte eta taldeekin batera eginez	Barne baliabideak	I. Imaz/J. Dorronsoro																	
	Herritarren ohiko elkartze-lana eskertzea	Barne baliabideak	I. Imaz/P. Garmendia J. Dorronsoro/L. Garcia																	

# HERRITARTASUNA



HELBURUA	EKINTZAK	AURREKONTU ESTIMATUA	ARDURADUNAK	KRONOGRAMA																
				2015	2016	2017	2018	2019												
Instalazioak eta ekipamenduak egokitu, eskuragarriak, lagunkoiak eta herritarren beharretara egokitutakoak izan daitezzen	Gizarte-zentroa herritarren beharretara egokitzea	195.000,00 €	F.J. Iraeta/E. Galvez L. Garcia/A. Mendinueta																	
	Mendeko pertsoneri eguneroko arreta eskaintzeko plazak sortzeko eta babespeko etxebizitza-kopurua handitzeko proiektua egitea	525.000,00 €	F.J. Iraeta/E. Galvez L. Garcia/A. Mendinueta																	
	Instalazioak eta espazio publikoak herritarren eta jardueren beharretara egokitzea	650.000,00€	I. Imaz/E. Galvez P. Garmendia /I. Sanz/ J. Dorronsoro/ A. Mendinueta																	
	Udal instalazioen eraginkortasun energetikoa handitzea	325.000,00 €	E. Galvez/A. France s Eraikinen arduradunak																	



## 1. Herritarren garapen integrala sustatu, arlo desberdinetan eskaintza egokia eginez: gizarte zerbitzuak, kultura, kirola eta aisia.

### *a) Udal talde desberdinetan ariketa fisikoa sustatzea.*

Kirolaren bidez, herritarrek egiten duten ariketa fisikoaren kantitatea eta kalitatea handitzea nahi dugu, jakin baitakigu ariketa fisikoa egiteak dituen onurak zabalak direla. Horretarako zabaldu egingo dugu kiroldegian eskaintzen diren zerbitzuen katalogoa, herritar orok eskaintza ugaria eta zabala izan dezan, bere nahiak eta beharrak asetzeko.

### *b) Zahartze aktiboa sustatzea, ahal den autonomia-maila handiena lortzeko.*

Legazpiko biztanleen egitura erabat aldatu da eta, horren ondorioz, agintari publikoek eta baita herritarrek ere, ahalegin handia egin behar dute eremu desberdinetan egokitze-estrategiak garatzeko.

Beraz, 2015-2020 aldirako Zahartzaro Aktiborako Euskal Estrategiara atxikiko gara, hiru arlotan lan eginez:

- Gizartea zahartze aktibora egokituz
- Aurrerapena eta prebentzioa landuz, zahartzea hobetzeko
- Ongizatezko gizartea eraikitzeko lagunkotasuna eta parte hartzea sustatuz

### *c) Haurrak, nerabeak eta gazteak artatzeko sistema integrala garatzea (Gaztematika).*

Herri mailan, Gaztematika, hau da, Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapen Sistema garatuko dugu. Horretarako ezinbestekoa izango da, lehenik eta behin, zer den ezagutaraztea eta, ondoren, beharrezko egitura osatzea.

Haur, Nerabe eta Gazteengan arreta jarriko dugu, egiten duguna hobetzeko eta jarduteko ildo berriak martxan jartzeko. Nerabeentzako Zerbitzuarekin jarraituko dugu eta 2016an amaituko da zerbitzua hobetzeko plangintza. Haurren eta gazteen beharrak ere aztertuko ditugu. Azken finean, haurrak, nerabeak eta gazteak bizi duten bizi-etapaz disfrutatzea eta autonomoak izan daitezela bultzatuko dituzten estrategiak eta ekintzak jarriko ditugu martxan.





Arrisku egoeran dauden adingabeekin lan egin beharra dago eta, horretarako, honako jarduerak ezartzea esploratuko dugu:

- Sortuko zaizkigun egoera guztiei kasu egitea atzerapenik gabe eta familian, hezkuntza arloan nahiz terapia arloan esku-hartzeko zerbitzuei aurre egiteko baliabide nahikoak izatea, itxarote-zerrenda batera jo beharrik gabe.
- Gai horretan gizarte-langileen gaitasuna hobetzea, arrisku egoeran dauden adingabeak dituzten familiak antzematean eta haietan esku hartzean eraginkorrak izan daitezen.

*d) Herritarren artean kultur adierazpen desberdinak sustatzea, haien aisialdian kultur adierazpen horiek txerta ditzaten, horretarako kultur ekimenen eskaintza handituz.*

Kultura norbanakoaren garapenerako eta gizarte-kohesiorako oinarria da. Ondorioz, kultur adierazpen desberdinez gozatzeko aukera eskaini nahi dugu, modu horretan herriko elkarteek egiten duten eskaintza osatuz. Horretarako, antzerki programazioa eta “euskal kantagintza” programa berriz martxan jartzeko ahaleginak egingo ditugu. Horrezaz gain, kalea eta espazio publikoak ere kultura-gune izatea bultzatuko dugu, ‘Uztaila Kulturala’ eta ‘Musika Parkean’ gisako ekimenak zabalduz eta indartuz.

*e) Irakurzaletasuna bultzatzea, Liburutegia ezagutzera ematea eta bere erabilera areagotzeko ekintzak antolatzea.*

Udal Liburutegia oinarrizko kultura zerbitzua da eta zerbitzu hori erakargarria izatea eta herritarren zerbitzura egotea nahi dugu. Horregatik ezinbestekoa dela uste dugu bere fondoa dokumentu berriez hornitzea eta ekintzak antolatzea zerbitzua ezagutzera emateko.

*f) Liburutegia sortu izanaren 50. urteurrena ospatzea.*

2018an 50 urte beteko dira Liburutegia martxan jarri zela eta, beraz, hori ospatzeko programa bat osatuko dugu.

## 2. Herritarren segurtasuna bermatu.

*a) Udalerriko Larrialdi Plana eguneratzea.*

Herriko maila desberdinetan ematen diren aldaketak kontuan izanik eta ikusirik, ezinbestekoa da Larrialdi Plana eguneratzea eta izan diren aldaketetara egokitzea. Horretarako lagungarri izango dira teknologiaren aurrerapenak batetik, eta koordinazio mailan izandako lorpenak bestetik.



*b) Larrialdietarako Zerbitzuak herriko kale guztietara irits daitezela bermatzea.*

Udalerrri guztietan gero eta gehiago dira oinezkoentzako kaleak eta Legazpi ez da salbuespena. Hori kontuan hartuz, larrialdietarako zerbitzuak kale horietan arazorik gabe sar daitezela bermatu behar dugu. Horretarako, Gipuzkoako Foru Aldundiak orain dela lau urte martxan jarri zuen "Giltzagune" izeneko programa bultzatuko dugu eta Legazpira egokituko dugu, identifikatu ditugun hiru gunetan.

### 3. Konpromisoa sustatu gizarte-garapenarekin, berdintasunerako aukerekin eta euskararen erabilerarekin.

*a) Euskararen erabilera sustatzea herriko esparru guztietan: kirola, merkataritza, gazteria, etorkinak,....eta abar.*

Legazpiko Udalak joan den 2014ko azaroaren 26ko Udal Korporazioaren Osoko Bilkuran onartu zuen 2014-2017 epealdirako Euskara Sustatzeko Ekintza Plana. Plan horren helburua herriko hainbat esparrutan euskararen erabilera sustatzea da. Planean jasotakoaren arabera, honako esparruak lehenetsi dira: Familia, Irakaskuntza, Euskalduntze-alfabetatzea, Administrazioa, Arlo sozio-ekonomikoa, Aisia eta Kirola, Liburugintza, Kulturgintza, Publizitatea, Corpus plangintza eta euskararen kalitatea, Komunikabideak, Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak, Sentsibilizazioa eta motibazioa eta Barruko proiektzioa. Horrela, urtero hainbat ekimen gauzatuko dira esparru horietan euskararen erabileran areagotze aldera.

*b) Antolatuko diren ekintzetan garapen iraunkorra izango da ardatza.*

Egingo diren ekintza guztietan beti izango da kontuan garapen iraunkorra. Horrela, adibidez, jaietan eta gainerako jardueretan erabiliko den materiala material iraunkorra izango da.

### 4. Udalerriko elkarteak dinamizatu, sustatu eta balioetsi.

*a) Jai nagusiak, auzoetakoak eta tradiziozkoak gorde, indartu eta eguneratzea, lan hori herriko elkarte eta taldeekin batera eginez.*

Santikutz jaiak, maiatzekoak nahiz agorrekoak, zaindu, indartu eta eguneratu nahi ditugu. Baina ez ditugu auzoetako jaiak ahaztu behar nortasun berezia baitute eta, are gutxiago ahaztu behar ditugu, mendez mendez, herrian sustraitu diren bestelako jai adierazpenak ere: Inauteriak, San Nikolas, Oilar jokoa, Olentzero,.... Eta inon herriko elkarte, talde eta norbanakoen inplikazioa beharrezkoa bada jaiak antolatzeke lanetan da, herritarren inplikazioaren arabera izango baita jaien arrakasta.



*b) Herritarren ohiko elkartze-lana eskertzea.*

Asko dira udalerrian lan egiten duten elkarteak eta ezinbestekoa da herritarren garapen integrala lortzeko bidean egiten duten lan hori eskertzea. Galtzen utzi ezin dugun altxorra dugu eta egiten duten lana eskertzeko modurik egokiena beren ohiko lana egiten jarraitu ahal izateko dituzten beharrei erantzun egokia ematea da. Horretarako, legazpiar taldeekin dagoen harreman-esparru hori urtero zehaztuko eta indartuko dugu.

**5. Instalazioak eta ekipamenduak egokitu, eskuragarriak, lagunkoiak eta herritarren beharretara egokitutakoak izan daitezzen.**

*a) Gizarte-zentroa herritarren beharretara egokitzea.*

Herritarrek gero eta gehiago erabiltzen dituzte Gizarte-zentroko zerbitzuak. Hori ikusita, nahitaezkoa ikusten da hainbat eguneratze- eta egokitze-lan egin beharra, batetik Osasun sailaren eta Aldundiaren eskakizunetara egokitzeko eta, bestetik, Eguneko zentroko plaza-kopurua gehitzeko.

*b) Mendeko pertsonen eguneroko arreta eskaintzeko plazak sortzeko eta babespeko etxebizitza-kopurua handitzeko proiektua egitea.*

Mendekotasun pertsonen eguneroko arreta eskaintzeari dagokionez eta urriaren 6ko 185/2015 Dekretuan ezarritakoa betetzeko xedearekin, plaza-kopuru bat sortzeko proiektua egitea aurreikusten da.

Horrezaz gain, beharrezko baliabideak bilatuko dira babespeko etxebizitzaren eskaintza zabaltzeko eta zerbitzu horren gero eta eskari handiagoari erantzun ahal izateko; modu horretan, adineko pertsonen bizimodu autonomoena eraman ahal izango dute.

*c) Instalazioak eta espazio publikoak herritarren eta jardueren beharretara egokitzea.*

Hauteskunde kanpainan adierazi zen moduan, orain arte udan bakarrik erabiltzen den igerilekua urte osoan erabilgarria izan dadila nahi dugu, horretarako egon daitezkeen oztopoak gaindituz. Modu berean, eguraldi txarra edota mantentze-lanak gaindituz, gainontzeko instalakuntzak hobetzeko ahalegina egingo da.

Doinua Musika Eskola Agirre-Etxeberri etxera pasako da. Hori dela eta, idatzitako proiektuari amaiera eman beharko zaio, ondoren obren kontratazioari hasiera emateko eta Agirre-Etxeberri birmoldatzeko. Proiektua burutu ondoren, horren balorazioa ere egingo da.



Kultur ekipamenduak egungo beharretara egokitu behar direla uste da. Garaiak, ohiturak, baliabideak aldatuz joan dira, eta espazioak egokitu egin beharko dira. Horrez gain, espazio bakoitzak, hartzen dituen ekimen eta ekintzetarako beharrezko dituen baliabidez hornitu beharko dugu.

Kontuan izanik gero eta gehiago erabiltzen dela kale bertan mota guztietako ekintzak burutu eta antolatzeke, garrantzi handia du ekimen desberdin horiek ahalik eta egokien burutu daitezen espazio desberdinak horretarako egokitzeak. Horrela, azoka gunea ixtea egokia dela iruditzen zaigu eta argindar hartuneak gehien erabiltzen diren hainbat puntutan jartzea ere.

*d) Udal instalazioen eraginkortasun energetikoa handitzea.*

Gaur egun gero eta handiagoa da energiaren erabilera eta egoera horrek gizartean duen eragina aintzat hartuz, ezinbesteko ikusten dugu energia eraginkortasuna areagotzea eta handitzea herritarrek erabiltzen dituzten Kultura, Kirola, Hezkuntza, Gazteria eta Gizarte Zerbitzuak arloetako udal eraikinetan.



[www.legazpi.eus](http://www.legazpi.eus)